


Tximistak sortzen

Nola sortzen dira tximistak?

Materialak

- Bi puxika
- Artilezko eskuzorro bat



Zer egin

1. Puztu bi puxikak.
2. Igurtzi puxika bat artilezko eskuzorroaz, eta bestea horma leun baten aurka.
3. Utzi gela ilunpetan.
4. Hartu puxika bat esku bakoitzean, eta gerturatu poliki-poliki elkarrengana. Zer gertatu da?

Zer gertatzen da?

Objektu orok karga elektriko negatiboa eta positiboa du. Puxikak eskuzorroaz eta hormaz igurtzita, aldatu egin dira puxikaren kargak. Hala, puxika batek karga positibo gehiago izango du, eta besteak negatiboa. Puxika kargatuak elkarrengandik hurbil jarrita, kargak batetik bestera igarotzen dira. Hala sortzen den elektrizitateari elektrizitate estatiko deritzo. Lainoetatik lurrera jauzi egiten duen elektrizitateari tximista deritzo. Elektrizitateak negatibotik positibora jauzi egiten du beti. Karga negatiboak lainoaren behealdean metatzen dira, eta lurrera iristen saiatzen dira. Kargen arteko aldea behar bestekoa denean sortzen da tximista.